



Kristina FERNANDEZ

«Lagun» ona

Miren ZEBERIO

Amonaren baserriko sukaldean jolasean aritu da. Lantokitik iritsi berri den osabak, beti bezala, mingaina katuak jan ote dion galdetu dio eta bera gorritu egin da. Izebak, umea bakean uzteko esan dio senarrari, txikia dela eta izango duela astia hitz egiteko. Osabak berriz, gogor egin behar zaiola, ama bezain oilo bustia aterako dela bestela. Masailtxo leun eta gorrituen gaineko begi urtsuek kristalezkoak dirudite.

Kanpoan giro ederra dagoela eta, lore-sorta polit bat osatzeko eskatu dio amonak txikiari. Salbazioa ikusita, salto batean zutitu da neska-koskorra eta sukaldeko atea zeharkatzearekin batera utzi die malkoei bidea egiten. Mandiotik entzuten ditu izeba eta osabaren elkarrenganako kexuak. Atarian, azkenik, isiltasuna: txoriak eta zuhaitzak dantzan, besterik ez.

Soinekoaren besoarekin lehortu ditu malko eta mukiak. Zikindu egin du. Ez du arropa zikindu behar: osaba haserretu egingo da. Lagunen ur-ontzian sartu du mahuka, baita igurtzi ere. Berehala azaldu da arratoi-zakurra mandioko itzalen artetik; nagiak atera eta aharrausi luzea egin ondoren bere ontzitik

edan du, patxadaz.

Neskatila lore bila abiatu da *Lagun* atzetik jarraika duela. Badaki lore mordoa dagoela beheko baratzearen ondoko zelaian. Amona oso pozik jarriko da: sekulako sorta osatuko du. Eta izebak uretan jarriko du! Lehendabizi horiak... ondoren moreak... gero zuriak... Dagoeneko badu nahiko lan bildutako guztiei eskutxoaren artean eusteko. Hala ere, politenak etxe-atariko arrosak dira. Bat hartuko du. Baina ai! Arantza sartu zaio behatzean! Odol tanta batzuk ageri dira eta malkoak berriz ere begietatik zintzilik. Behatza zupatu eta lore sorta lurrean utzi du. Ez da amonarengana joango sendatzera; osaba haserretu egingo da.

Lurrean utzitako lore sortaren ondoan eseri da behatza ahoan duela. *Lagunek* belarriak tente begiratzen dio. Neskatala burua laztantzen hasi zaio "*Pintto Pintto*" murmurikatzen duen bitartean. Behatzearekin ezezkoa egin dio muturraren aurrean. Jarraian begi bat estali dio eta aurreko hanketatik heldu dio elkarrekin jolasteko. «Oso ondooo!» Txalo-txalo egin dute biek amaieran. Umeak badaki zakur bizkorrek botatako makila bueltan ekartzen dutela. Zutitu eta aranondoren adaxka bat jaurti du indar guztiz. Animaliak, ordea, zirkinik ere ez. *Lagun* ez da, nonbait, oso zakur bizkorra.

Dagoeneko lore politenak eragindako

mina ahaztuta, neskatala aspertzen hasia da. Zakurraren ondoan eseri da berriro, eta lurra, bat-batean, oso biguna da. Lore sortaren gainean eseri da!

–Tonto, tonto, tonto!!! Zure kulpagatik! –oihukatu dio *Laguni*.

Honek ere negar antzeko bat egin du ostikada hartzearekin batera. Isatsa hankartean ezkutatuta eta belarriak jaitzita begiratzen dio orain lehentxeago jolas-lagun zuenari. Burua are gehiago makurtzeko erreflexua izan du umeak besoak gurutzatu eta hasperen egin duenean. Neskatoa *Laguni* bizkarra eman eta lore sorta konpondu nahian hasi da etsipenez. Baina berehala ikusi du ez dagoela hain gaizki ere; lore batzuk kenduta ez da nabaritu. Esker-erak!

Eskutxoak gerrian jarrita jiratu da berriro ere zakurrarengana. Jadanik bekozkoa argitu zaio ordea, eta segituan eseri zaio aldamenean. *Lagunek* atzera pauso pare bat eman ditu isatsa astinduz, begiak erne eta belarriak tente. Neskatoa burua laztantzen hasi zaionean isatsaren mugimendua azkartu du. Bera ere eseri eta eskuak miazkatu dizkio umeari, honen barreak eraginez.

Algara artean, neska-koskorrek lerdez betetako eskutxoak soinekoan lehortu

ditu eta animalia laztantzeari ekin dio berriro. Halako batean, esku artean hartu du zakurraren lepoa. Estutzen hasi da, eta larri ikusi ditu animalia berrak. Honek ez du, ordea, defendatzeko edo iheserako keinurik egin. Neskatoak zintzurretik datorren klaska entzundakoan askatu du, zaratak bat-batean bere baitatik atera izan balu bezala. Animaliak zailtasunez tragatu du listua, eta hantxe geratu da, geldi-geldi, begi bustiekin neskari so.

Umea salto batean altxatu da lurretik eta korrika abiatu da baserrirantz, paseran lore sorta berriro zapaldu duela ohartu ere egin gabe. Animaliak atzerantzko jauzia egin du neskatoaren bat-bateko mugimenduaren aurrean. Baina neskatoa badoala ikusita, segituan jarri da bera ere martxan: *Lagunek* ez du bakarrik geratu nahi, eta atzetik jarraitzen dio, korrika eta isatsa astinduz. Atarira iritsi direnean, eguzkitan eserita dagoen amonak algaraz hartu ditu biak:

–Baina Maddalen! Ez du ezer egiten eta! Zurekin jolastu nahi du! Egia izango da, azkenean, zeharo oiloa datorrela umea...

Miren Zeberio 1981 an jaiotako ibartarra da.